


Artium Museoa
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa
Vitoria-Gasteiz • Araba
www.artium.eus

Patricia Esquivias. Cardón cardinal

Z aretoa programa



Z aretoan, 2021eko maiatzaren 13tik ekainaren 27ra

Argitalpena, Manuel Asín testuarekin. Garbiñe Ortegaren eta Beatriz Herráezen sarrera

Komisarioa: Garbiñe Ortega

Lotutako jarduera: *Cardón cardinal*-en proiektzioa eta Patricia Esquiviasen eta Garbiñe Ortegaren arteko solasaldia

Maiatzaren 13an, osteguna, 18:00etan

Argibide gehiago: www.artium.eus

ARTIUM MUSEOAK Z ARETOA PROGRAMA AURKEZTU DU PATRICIA ESQUIVIAS-EN *CARDÓN CARDINAL* PELIKULAREKIN

1992ko Erakusketa Unibertsalerako Mexikon endemikoa den kaktusaren ale bat Sevillara eramateari buruzko ikerketaren emaitza da *Cardón cardinal*

Z Aretoa programak artearen eta zinemaren hizkuntzak partekatzen dituzten artista eta zinemagileen lau ekoizpen aurkeztuko ditu 2021ean

Artiumek, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa, Z aretoa programa jarri du abian Patricia Esquiviasen *Cardón cardinal* filmarekin, 1992ko Erakusketa Unibertsalerako Mexikotik Sevillara 18 tonako kaktus erraldoi bat, kardo bat, eramateari buruzko ikerketatik sortua. *Cardón cardinal*en proiektzioa proiektuaren egikaritzearekin lotutako artistaren objektu eta ohar sorta baten bidez kokatuko da testuinguruan. Z aretoak eremu zinematografikoan sartzen diren artisten eta erakusketa-formatua aztertzen duten zinemagileen lanak ikusgai jartzeko espazioa sortu du Artium Museoa. Maddi Barber eta Marina Lameiro, Rosalynd Nashashibi eta Eric Boudelaire izango dira programa honen parte 2021ean. Garbiñe Ortega ikertzailea eta Punto de Vista jaialdiaren zuzendari artistikoa da.

Z aretoa programa ez da zinema ziklo bat areto batean, eta erakusketa bat ere. Proiektu honek tarteko espazio bat eraikitzen du, zinemaren lurraldera salto egiten duten artisten eta erakusketa-formatua aztertzen duten zinemagileen lanen inguruan hausnartzeko eta haiek ezagutarazteko. Museoa mugimendudun irudia pentsatzeko keinu erabakigarritik sortutako programa da. Hizkuntza zinematografikoa historikoki kategorizatzen duten generoak zalantzan jarriz narrazio-forma berriak bilatzen saiatzen diren egileengana hurbildu nahi dira ikusleak programa honen bidez.

In Defense of the Poor image (irudi pobreaken defentsan) izeneko saiakera batean, Hito Steyerl artistak ekoizpen mediatikoaren berregituraketa neoliberalak izaera esperimentalagoa zuen ekoizpen zinematografikoa nola aldatu zuen deskribatzen du, eremu publikotik desagerraraziz. Dinamika horiek, aldi berean, ekoizpen independenteen zirkulazioa eta erakusketa-zirkuitu berriak sortu dituzte, besteak beste, arte-zentroetako aretoak eta museoak. Hala ere, oraingo honetan, Museoaren proiektzio-gela ordeztu beharrean —askotan proposamen honekin bat egiten duen pantaila aktiboa—, ikus-entzunezko ekoizpen horiek gehituz erakusketa-espazioetako ikustaldietan protokolo eta denbora berriak aztertzea proposatzen da.

Programaren dinamika erraza da: film edo film sorta bakoitza Z aretoa esaten zaion horretan begiztan proiektatuko da, gutxi gorabehera bi hilabetez. Filmaren inguruan, elkarrizketa bat egingo da egile bakoitzarekin. Erakusketa-proiektu berri bakoitzarekin, aretoko lanen fitxa tekniko oso bat eta aditu, kritikari eta historialari batzuek eta besteek idatzitako testu espezifikoak biltzen dituen argitalpen bat argitaratzen da, programatutako lanen hedapena, analisia eta gogoeta sustatzeko.

2021. urtearen amaierara arte luzatuko den programa honetako lanak zeharkatzen dituzten gogoeten artean, azpimarratzekoak dira egileek taldearenaren ideiarekiko duten interesa eta haren inguruko ikerketa, eta baita elkarrekin pentsatzen eta lan egiten jarraitzeko eta etorkizun partekatu bat proiektatzeko moduak ere.

Cardón cardinal

Cardón Cardinalek duela 26 urte jazotako gertaera baten bertsio zabala kontatzen du: Kaktus erraldoi bat, 17 metro gora eta 18 tonako Pachycereus pringlei bat, nola eramán zen Kalifornia Behereko basamortutik Mexikoko Pabiloiko lorategira Sevillako 92ko Erakusketa Unibertsalerako. Ordenagailu baten pantailan Mexikora egindako bidaia baten eta Sevillara egindako beste baten irudiak ikusten ditugu, eta aldi berean, Sevillan abandonatutako kaktus herraldoiaren —Kalifornia baxuko balio ekologiko eta etnologiko handiko espezie endemikoaren— presentzia ulertzeko egindako ikerketa baten berri ematen du offeko ahots batek.

Proiektu honen harira egindako argitalpenean, Manuel Asínek azaltzen du: «Cardón cardinalen protagonistetako bat Kalifornia Beheretik Sevillara mirespena sortzeko aitzakiarekin eramandako kaktus erraldoi zoragarri hori da, zeinaren inguruan azkenean aparkaleku bat egin baitzuten»; eta bere buruari galdetzen dio: «Zenbaterainokoa zen pasioa eta zenbaterainokoa erantzukizuna Juan Siles Aguilera ingeniariarengan eta Pedro Ramírez Vázquez arkitektoarengan, arkitekturaren edo lorezaintzaren izenean, hamalau metroko altuera zuen kaktus erraldoi bat Mexikoko basamortutik erauzi zutenean Sevillan birlandatua izateko, ia 10.000 kilometrora, 1992ko Erakusketa Unibertsala zela-eta?»

Patricia Esquivias Caracasen jaio eta Madrilen hazi zen. Londresen ikasi zuen (1997-2001) eta San Frantziskon (2005-2007) zabaldu zituen ikasketak. Ondoko erakunde hauetan erakutsi ditu bere lanak bakarka: Madrilgo Arte Ederren Zirkuluan, Langenhagen Kunstverein-en, Stacion Pristinan, CA2M Móstolesen, MARCO Vigon, Hammer Museum-en, Reina Sofia Museoan eta White Columns-en. Talde erakusketetan ere parte hartu du, nona batzuk: Querer parecer noche, CA2M, Arte y cultura en torno a 1992, CAAC, Ficciones y territorios, Museo Reina Sofía eta When Things Cast No Shadow, 5. Berlin Biennale für zeitgenössische Kunst.

Lotutako jarduera

Cardón Cardinal-en proiektzioa eta Patricia Esquiviasen eta Garbiñe Ortegaren arteko solasaldia Maiatzaren 13an, osteguna, 18:00etan

Artium Museoaren erakusketak

Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian. Artium Museoa Bilduma

Katinka Bock. Logbook. 2021eko irailaren 12ra arte

Patricia Esquivias. Cardón cardinal. Sala Z. 2021eko ekainaren 27 arte

Juncal Ballestín. Bizitza ariketa gisa. 2021eko maiatzaren 23 arte

Bigarren Bidea (Zeru bat, hamaika bide). Artium Museoa Bilduma

Gerardo Armesto. 2021eko ekainaren 20 arte

Daniel Llaría. Testuinguruak bilduma batetik abiatuta. 2021eko maiatzaren 23 arte

Aurki

Xabier Salaberria. Arkitekturarik gabeko erakusketa bat. 2021eko maiatzaren 21etik urriaren 17ra

Nadia Barkate. Testuinguruak bilduma batetik abiatuta. 2021eko maiatzaren 29tik irailaren 5era